



**Aske izan nahi dut, ez ausart**



**Indarkeria sexistaren prebentzioa**

**steilas**





## Aske izan nahi dut, ez ausart

### SARRERA

Emakumezkoen zein gizonezkoen haien sozializazio prozesuan oso jarrera estereotipatuak inposatu zaizkie. Emakumeengandik zaurkortasuna, beldurra edo segurtasun falta, beraz babesaren beharra, adieraztea espero da. Ausardia aldiz, ipuin tradizionaletan ikus daitekeen bezala, gizonezkoen ezaugarria da. Heroiek hainbat oztopo eta arriskuei aurre egiten diete, gehienetan bakarrik (batzuetan elementu magikoen laguntzaz).

Historian zehar, hainbat emakumek gizonen janzkera erabili behar izan dute emakumeentzat ezinezkoak liratekeen ekintzak burutu ahal izateko. Besteak beste unibertsitatean ikastea edo bidaia bereziak egitea. Beste aldetik, gizonezko askok emozioak disimulatu behar izaten dituzte eta maskulinitateak finkatzen dituen portaerak bereganatu.

Orain, nahiz eta estereotipoak indarrean egon, gero eta ohikoagoa da emakumezkoen eskatzea eredu estereotipatutik aldentzea eta kontrako portaerak izatea, ausartak izateko gonbitea eginez eta indarkeria sexistari aurre eginez. Aldiz, gizonen kasuan ez dago ongi ikusirik emakumezkoen atxikitzen zaizkien bizimoldeak barneratzea. Hau da, portaera maskulinizatuak ongi baloratzen dira bi sexuetan, eta femeninoak aldiz ez.

Inork ez lituzke estereotipo sozial inposatuak onartu beharko. Askatasun indibiduala baztertuta edo ukatuta izateko beldurrik gabe, edonor den modukoa azaltzean datza. Bizitzako hainbat unetan ausardia erakustea beharrezkoa da, baina egunerokotasunean, kanpo erasoak ekiditeko defentsiban aritzea ez litzateke ezinbestekoa izan behar. Horregatik, inportantea da indarkeriarik gabe bizitzeko eskubideari garrantzia ematea.

Aurtengo Unitate didaktikoan leloarekin lotura duten bi gai tratatu nahi izan dugu. Genero estereotipo inposatuetatik kanpoko garapen pertsonalaren eskubidea aldarrikatzea eta beste aldetik ikaslego osoari elkarren arteko errespetua ezinbestekoa dela eta neska zein mutilen neurri sozial eta politikoen beharrez ohartarazi genero inposaketaren gainetik eraso sexisten beldurra gainditzeko



# Aske izan nahi dut, ez ausart

## ABIAPUNTUA

Unitate honen abiapuntua steilasen kartela edo bibliografian proposatutako materialen bat izan daiteke.

## HELBURU OROKORRA

Jendarteak emakumeei inposatzen dizkien mugak eta gizonezko zein emakumezkoen estereotipoetaz hausnarketa egitea eta arazoan konponbiderako taldeko irtenbideak bilatzeko.

## HELBURU DIDAKTIKOAK

- Askatasuna ahalbidetzen duen bizikidetasunerako jarrera egokiak eta desegokiak identifikatzea.
- Norbanako ezaugarriak, emakume zein gizonezkoen inposatutako estereotipoen kontuan hartu gabe, baloratzea.
- Arazoak konpontzeko taldeko estrategiak garatzea.
- Normaltzat hartzen diren baina emakumeen kontrako erasoa ezkututzen duten ohiturak, sinesmen eta praktiken aurrean espirtu kritikoa garatzea, haien ondorioez jabetzeko eta kontra borrokatzeko.
- Zein jendarte eredu nahi dugun hausnartzea, hura aztertuz, jendartearen pertsona guztien ongizatea bilatzeko.
- Ikasleen auto-estimua era aktiboan sustatzea, beraien garapen psikosoziala indartuz, erabakiak hartzeko gaitasuna izateko.
- Gaitasun sozialak lantzea (bai/ez esatea, argudiatzea, eskatzea, nahia adieraztea..), horretarako behar diren egoerak eskainiz, askatasunez bizitzen ikasteko.
- Gatazken konponbidea modu positiboan lantzea, horretarako behar diren egoerak eskainiz, enpatia garatzeko.

## GINARRIZKO GAITASUNAK

- Gizarterako eta hiritartasunerako.
- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.
- Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna.
- Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.

## EDUKIAK

- Unitatean agertzen diren jarrera ezberdinen definizioa: beldurra, elkarrizketa, jeloskortasuna, eskuzabaltasuna, errespetua....
- Inguruaren ezagutza.
- Historian zehar emakumeen egoerari buruzko analisia.
- Indarkeria matxistaren konzientzia.
- Emakume eta nesken egoeraz sensibilizazioa.
- Emozioen identifikazioa.
- Eguneroko arazoak eta konponbideak.
- Auto-estimua hobetzeko mekanismoak.
- Gaitasun sozialak.
- Elkarlanerako eta lankidetzarako jarrera eta adostasunetara iristeko prozeduren garapena.
- Informazioa bilatzeko, sailkatzeko, aztertzeko eta adierazteko trebeziaren garapena.



# Aske izan nahi dut, ez ausart

## JARDUERAK

### 1. GAIAREN AURKEZPENA ETA MOTIBAZIOA

Hurrengo jarduerak ikasleen adina zein gaiarekiko duten motibazioari egokitu beharko dira. Horretarako baliabide desberdinak erabil daitezke: kartela, ipuinak, argazkiak.

**Materialak:** Steilas-eko kartela, post-itak, arbela, klariona, folioak eta boligrafoak

**Denbora:** hiru-lau saio

**Taldekatze mota:** Banaka, talde txikiak, talde handia

**1. eta 2. Saioa:** Ideia zaparrada

**Garapena:**

1. Irakasleak ikasleei post-it bana banatuko die
2. Ondoren saioa hasiko du ASKATASUNA zer den galdetuz
3. Pentsatzeko denbora eman gabe, ikasle bakoitzak burura etortzen zaion lehenengo ideia post-itean idatzi beharko du.
4. Minutu pare bat pasa eta gero post-itak jasoko dira.
5. Tutoreak bi idazkari izendatuko ditu (gelako zaharrena eta gazteena izan daitezke) eta arbela bi zatitan banatuko da. Alde batean + eta bestean – jarriko da.
6. Idazkari batek post-itean idatzita dagoena ozenki irakurriko du. Bigarren idazkariak taldeko laguntzaz itsatsi beharko ditu + edo – zutabeetan idatzitakoa positiboa edo negatiboa iruditzen zaien arabera.
7. Amaitzen dutenean, hausnarketa bultzatuko da galdera hauen bitartez:
  - Zeintzuk izan dira askatasuna definitu duten esaldi edo ezaugarri nagusiak? Zergatik?
  - Askatasunak orokorrean zer ezaugarri ditu?
  - Positiboa edo negatiboa da?
  - Ideiak errepikatu al dira?
  - Egon al da harritu zaituen definizio edo ezaugarririk? Zergatik?
8. Bukatzeko denen artean ASKATASUNAREN klaseko definizioa egingo da. Folio edo kartulina batean idatziko da eta toki ikusgarri batean jarriko da.

Bigarren saioa berdina izan daiteke, baina ASKATASUNA izan beharrean AUSARDIA erabiliz.



## Aske izan nahi dut, ez ausart

### 3.Saioa

#### Garapena:

1. Irakasleak steilaseko kartela toki ikusgarri batean jarriko du.
2. Taldea talde txikitan banatuko du eta hamabost minututan talde bakoitzari kartelaren esanahia zein den adierazten saiatzeko eskatuko dio.
3. Esanahiak komunean jarriko dira eta azalpenak emango dira:
  - Zeri erreparatu diozue horrelako ondorioak ateratzeko?
  - Kateek zer adierazi nahi dute? Eta kateak moztuta egoteak?
  - Kartelaren leloak zer adierazten du? Zergatik neskak ausartak izan behar dira?
  - A25 egun honetan zer errebindikatzen da?
  - Kartela egun honetarako egokia al da? Zergatik?
  - Egun hauetako errebindikazioak egiten jarraitu behar al da? Zergatik?

### 4.Saioa

Saio honetan talde bakoitzari bere produkzio propioa sortzeko eskatuko zaio: kartelak, komikiak, laburmetraiak?...



## Aske izan nahi dut, ez ausart

### HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA

#### 1. AUSARTA IZATEA EZ DA EZARPENA, GEURE AUKERA DA

**Materiala:** Laburmetraia "Ferdinando" (Oscar Disneyren Laburmetraiak) Arbela, paper murala, ipuinen pertsonaien irudiak, orriak eta margoak

**Denbora:** lau saio

**Taldekatzea:** talde handia, talde txikia eta banaka.

**Lehenengo Saioa:** "Ferdinando" eta beste ipuinetako pertsonaiak

**Garapena:**

1. Gelakide guztiok laburmetraia ikusiko dugu.
2. Behin amaituta, irakasleak ikusitakoaren inguruko eztabaida proposatuko du galdera hauen laguntzaz:
  - Abeltzainek zer nahi dute protagonistak egitea ?
  - Zergatik ez du egiten?
  - Zer da benetan gustatzen zaiona?
  - Zer nolakoa da Ferdinando: ausarta, koldarra edo beste ezaugarri batzuk al ditu?
  - Zer garrantzia du izaera bat edo bestea izateak?
  - Zoriontsua al da?

**Bigarren Saioa:** ausardia ez da beti beharrezkoa

**Garapena:**

1. Irakasleak proposatuko die ikasleei aipatu ditzaten ausartak edo koldarrak diren ipuinen pertsonaiak eta pertsonaia horien irudiak bilatzea.
2. Behin irakaslearen laguntzaz irudiak eskuratuta, mural bat osatuko dute paper handian. Hau, hiru zatitan banaturik egongo da: bazter batean pertsonaia koldarrak, bestean ausartak eta erdian ausardia eta koldarkeriaren arazoak zerrendatuko ditugu.
3. Murala amaitu eta gero, irakasleak erdiko zutabean kontzentra daitezela planteatuko du eta agertzen diren arazoak aztertzen joan eta ausardia indibidualetik pasatu beharrik gabe konponbide alternatiboak emango dituzte.



## Aske izan nahi dut, ez ausart

### Hirugarren Saioa:

#### Garapena:

1. Irakasleak portaera ezberdinekin lotutako hitz multzoa emango die eta hitz hoiien esanahia aztertu bitarteko dute. Jarraian, hurrengo koadroa emango zaie eta lehen zutabeko hitzak baliogabetu dezaketen bigarren zutabeko hitzekin lotuko dituzte.

BELDURRA	NEGOZIAZIOA
JELOSKORTASUNA	ELKARRIZKETA
INDARKERIA	SOSTENGUA
MESPREZUA	BALORAZIOA
BERKOIKERIA	ERRESPECTUA
INPOSAKETA	SEGURTASUNA
LOTSA	ESKUZABALTASUNA

### Laugarren Saioa:

#### Garapena:

1. Irakasleak ikasleei lau zatitan banatutako orria banatuko die, ausardiaz jokatzera behartuak izan diren bizi egoerak pentsatu eta marraztuko dituzte banaka. Gelako kortxeran erakutsiko dira.
2. Segituan, launaka bilduko dira. Marrazki bat aukeratuko dute, eta pertsona horri ausardia exijitzen zion arazoari guztion artean konponbidea aurkitzen ahaleginduko dira. Arazoa ekiditea edo konpontzea lagundu dezaketen hitzak aurkituko dituzte aurreko ariketaren hitz gakoaren artean.





# Aske izan nahi dut, ez ausart

## BIGARREN HEZKUNTZA

**Materialak:** Internet

**Denbora:** Bi-hiru saio

**Taldekatzea:** Banaka, talde txikiak, talde handia

**1. Saioa:** Kateak

**Garapena:**

1. Irakasleak steilaseko kartela toki ikusgarri batean jarriko du eta aurreko saioko ondorioak gogoratu ditu.
2. Kateak daukan esanahian jarriko du arreta.
3. Ikasleei zer egoeratan kateatuta edo lotuta sentitu gaitzkeen / daitezkeen galdetuko die.
4. Pentsatzeko tarte labur bat utzi eta gero, banan banan egoera erreal edo irreal bat azaltzeko eskatuko die.
  - a. Egoera mota
  - b. Inplikaturako pertsonak eta jokatu dituzten rolak
  - c. Egoeraren bukaera eta zergatia
  - d. Egoerak duen inplikazioa hori jasan dutenen bizitzan
  - e. Bukatzeko beste modu posibleak
5. Egoerak sailkatuko dira. Horretarako bi modu hauek erabil daitezke: errealak edo irrealak direnak edo bukaera / konponbidea ona edo txarra dutenak. Bigarren sailkapen hau askoz subjektiboagoa denez, aurretik talde txikitik eztabaidatu daiteke.
6. Behin sailkapena izanda, ondorioak aterako dira:
  - a. Aipaturako egoerak ezagunak al dira zuretzat?
  - b. Zuri edo ezagutzen duzun norbaiti horrelakorik gertatu al zaio?
  - c. Kateatuta / lotuta sentitzeak zer sentimendu mota sortarazten dizu?
  - d. Nola jokatu duzu /dute zure ezagunek egoera horren aurrean?
  - e. Egoerari aurre egin eta gero, nola sentitu zara / dira?
7. Ondorioak jasoko dira eta esandakoarekin hausnartuko da:
  - a. Egoeren protagonistak neskak edo mutilak al dira?
  - b. Nortzuk agertu al dira babestuago edo babesik gabe?
  - c. Aipaturako egoeretan indarkeria al dago? Hala bada, noren kontra. Nesken ala mutilen kontra? Erasotzaileak neskak ala mutilak dira?
  - d. Zer sentimendu mota ateratu dira?
  - e. Neskek eta mutilek berdin pentsatzen al dute? Berdin sentitzen al dute? Zergatik? Konponbide berdinak bilatzen al dituzte?
  - f. Nesken eta mutilen artean desberdintasunak al daude? Zeintzuk?
8. Bukatzeko egoera desberdinak aukeratu daitezke eta antzestu edota horma-irudiak prestatu.





## Aske izan nahi dut, ez ausart

### 2.Saioa: Emakume kateatuak

Historian zehar asko izan dira beren gaitasunak erakusteko isilean edo ezkutuan ibili behar izan diren emakumeak. Gaur egun ere hainbat egoera bizi izaten dugu non emakumeak emakume izateagatik onartuta ez dauden. (kirolean, herriko jaietan, elkarteetan...)

#### Garapena:

1. Tutoreak taldea talde txikitik banatuko du.
2. Talde bakoitzak arlo bat landuko du, adibidez hurrengoak: zientzia, kirola, folklore, musika, ejertzitza....
3. Lanean hasi baino lehen, irakasleak ea zenbat zientzialari, idazle, kirolari, musikari, soldadu... ospetsu ezagutzen duten galdetuko du eta zerrenda bat osatuko da.
4. Zenbat gizon eta zenbat emakume agertzen diren ohartaraziko ditu.
5. Ondoren, talde txikitik bakoitzak bere arlotan emakumeak bilatzen saiatuko dira, (bereziki emakume izateagatik arazoak izan dituztenak interesatzen zaizkigu).
6. Informazioa guztion artean partekatuko da eta ondorioak aterako dira:
  - a. Bilatzea zaila izan al da?
  - b. Bizitza interesgarriak topatu al dituzue? Zeintzuk? Zergatik?
  - c. Emakume hauek zer izan dute kontra? Eta alde?
  - d. Zer arrazoi izan dute gizonen jantzeko edo bizitzeko?
  - e. Egoera soziala asko aldatu al da? Eta emakumeen egoera?
  - f. Gaur egun horrelako gauzak gertatzen al dira? Zer arlotan? Zer egin dezakegu?
7. Bukatzeko, talde bakoitzak emakume baten bizitza aukeratu du eta bere biografia antzeztu, idatzi, marraztuko.. dute. Beste klaseetako kideei kontatu, erakutsi edo antzeztuko diete.

*Jarduera hau egiteko aipa daitezkeen izen batzuk: Catalina de Erauso, Bronte Ahizpak, MaryRead, Papa Juan VIII, James Bulkley, Charles de Beaumont, Denis Smith, Coronel Amelio Robles, Sarah Edmons, Billy Tipton, George Sand...*

Hurrengo saio batean gaur egungo egoerei buruz hausnartuko da: alardea, hainbat elkarte jasaten duten debekua, hainbat gizonen dantzak...



## Aske izan nahi dut, ez ausart

### EBALUAKETA

Kartelarekin egingo den lehenengo jarduera ikasleek indarkeriaz dituzten ezagupenak edota sentsibiltatea ebaluatzen erabiliko da. Horrek erraztuko du zehazten zeitzuk diren bereziki landu behar diren alderdiak.

Unitatea lantzen den bitartean, ikasleen parte hartzea eztabaidetan informazioaren bilaketan eta materialen elaborazioa behaketa sistematiko baten bitartez ebaluatuko da.

Unitatea bukatzean, berriz, ikasleen banakako eta taldeko lana baloratuko da ezarritako irizpideen arabera.

Bestalde, jarduera bakoitzaren bukaeran jardueraren beraren ebaluazioa egingo da, zerk funtzionatu duen, zerk ez, nola antolatuta den gela, denbora, ikasleen motibazioa, taldekatzea... Hau guztia unitatearen prozesua eta garapena egokitzen erabiliko da.

#### **Ebaluatzen irizpideak**

- Ea kontzientea den munduan emakumeen kontrako indarkeria dagoela.
- Ea kontzientea den harremanetan indarkeria dagoela.
- Ea eguneroko egoerak behatzen eta aztertzen dituen genero osagaia kontuan hartuz.
- Ea ohartzen den harremanetan dauden estereotipoak.
- Ea ohartzen den historian zehar emakumeek pairatu duten diskriminazioak.
- Ea harremanetan izan behar dituzten ezaugarriek bere lehentasunak adierazten dituzten.
- Ea kontzientea den harremanetan indarkeriak ekartzen dituen arriskuez.
- Ea ezagutzen duen ondorengo hitzen esanahia: beldurra, negoziazioa, jelskortasuna, balorazioa, errespetoa, sostengua, elkarrizketa, mesprezua, berekoikeria, inposaketa, lotsa, eskuzabaltasuna, segurtasuna eta gai den jakiteko zeintzuk diren egokiagoak bizikidetasunerako
- Ea ezagutzen duen askatasuna eta ausardien hitzen esanahia eta bere balio baikorra edota ezkorra.

**Ebaluatzen teknikak:** Behaketa

#### **Ebaluatzen tresnak:**

- Irakaslearen eguneroko jarraipena.
- Ikasle bakoitzaren istorioa. Bertan bilduko dira beraien lanaren balorazioa, lan esanguratsuen bilduma eta unitatea garatzen egindako ahozko ekarpenak.
- Egindako lanak.

**Ikasle ebaluazioa:** Elkarrizketarako gidoia

- Zer den gehien eta gutxien gustatu zaiena.
- Zer den ikasi dutena edota zertaz jabetu diren.
- Zerk harritu dituen gehien.
- Zer aldatuko zuten prozesuan.



## Aske izan nahi dut, ez ausart

### BALIABIDEAK



#### Liburuak

- Rosa Caramelo
- Momo – Michel Ende

#### Abestiak

- Ella – Bebe : <https://youtu.be/n79LFCX19Gw>
- Who run de world – Beyoncé : <https://youtu.be/A4r5XvENj8o>
- Matxote, kontuz ibili – Arkotxa Gazte Konparsa : <https://youtu.be/NC7taM67ccg>
- Gauaren erregina - [https://www.youtube.com/watch?v=YX1S5\\_PhnLQ](https://www.youtube.com/watch?v=YX1S5_PhnLQ)

#### Serieak

- Papi Calzaslargas
- Dora la Exploradora
- Ana de las Tejas Verdes
- Las Supernenas

#### Filmak

- Brave ( 2012) – Mark Andrews
- La Bicicleta Verde ( 2012) – Haifaa Al Mansour
- Quiero ser como Beckman ( 2002) – Gurinder Chadna
- Telma y Louise ( 1991) – Ridley Scott
- El Cairo 678 ( 2010) – Mohamed Diab
- Los Ángeles de Hierro ( 2004) –Katja Von Garnier
- Pardo Bazán: la condesa rebelde ( 2011)- Zaza Ceballos
- Billy Elliot ( 2000)- Stephen Daldry
- Beste Batzuk: Sufraguistas, Flor del Desierto, Chocolat, Las Mujeres de Verdad tienen Curvas, Persepolis  
(.....

#### Beste materiala

- Hezkidetzeta da Bidea- **steilas**
- <http://www.emakunde.euskadi.eus/noticia/2016/un-estudio-detecta-contradicciones-entre-los-discursos-y-las-practicas-con-respecto-a-la-desigualdad-entre-las-y-los-jovenes-vascos/u72-rev0cont/es/>
- <http://www.ondarroa.eu/Documents/gida-indarkeria-sexistaren-aurka.pdf>